



Iraila da eta urtero bezala Dantzan Bilakaren jardunaldiak hurbil dauzkagu. DB Programa, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatzen du.

2017ko edizioak aldaketak dakartza. Azken bi urteetan ADDEk (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak) programaren kudeaketan lan egin du eta egin dugun hausnarketaren ondorioz, programari astindu bat ematea eraman gaitu begirada berri batez ikusi ahal izateko.

Aurten, parte hartzen duten proiektuen aurkezpen guztiak lurralde bakarrean bilduko dira, horrela, partaideak, beste profesionalak eta ikusleak elkartu eta ekitaldia aberastuko dituen ekintza paraleloak egingo dira ideien hartu-eman eta hausnarketarako testuinguru zabalago batean.

Halaber, programa urtero EAEko hiru hiriburuetatik biratzea planteatzen da.

Beraz, testuinguru berri horretan, sorkuntza lanen aurkezpenak programa zabal baten ekintza paraleloekin babestuak egongo dira, izan ere, partaide koreografoen, dantza profesionalen eta ikusleen artean erraztu eta hobetuko duen ingurunea sortzea da ekintza horien helburua.

Horrela, topagune marko berri horrek, lau angeluetatik begiratzen dio sorkuntza koreografikoari:

- 1) DB2017ko 9 koreografoen proiektuen aurkezpenak (dantza egiten duten gorputzak)
- 2) Ikusle Berrien sensibilizazioa (esperimentatzen duten gorputzak)
- 3) Koreografo Kontsolidatuekin formakuntza (praktikatzen duten gorputzak)
- 4) Hausnarketa teorikorako espazioa (pentsatzen duten gorputzak)

Dantzan Bilaka 2017ko koordinazio eta jarraitze batzordea honakoek osatzen dute: Blanca Arrieta (koreografa eta dantzaria), Igor de Quadra (sortzaile eszenikoa eta pedagogo) eta Olatz de Andrés (koreografa eta dantzaria). Eta antolakuntza taldea honakoekin osatzen da: Javier Andra (arduradun teknikoa), Maite Zabaleta (disenatzaile grafikoa), Marian Gerrikabeitia (ikusentzuneke errealizadorea) eta ADDEko bulegoa.

Aurtengo edizioa abiapuntutzat imaginatu nahi dugu, non testuinguru berri eta zabal bat sortu eta urte bakoitzean kokatzen den espazioaren singularitatearekin bat egingo duen programa izateko. Horrela, urtero, programaren birpentsatzea ahalbidetuko du, proposamen berritzaileak sortu sare espezializatua bizitu eta ikusle orokorrari erakartzeko.

Dantzan Bilakaren jardunaldiak Azkuna Zentroan izango dira, urriaren 5, 6, 7 eta 8an.

Laster, programaren informazio guztia bidaliko dizuegu baita ekintzetan parte hartzeko modua ere.